



“Bihotza ESKUAN eta ibili MUNDUAN” Eskumuturreko solidarioa diseinatzeko urteroko lehiaketa

Begoñazpi Ikastolako Guraso Alkarteak “**Bihotza eskuan eta ibili munduan**”
I. Lehiaketa antolatu dau.

Lehiaketa honen xedea da eskumuturreko solidario bat diseinatzea, 2018/2019 ikasturteko irudi adierazgarria izango dana. Diseinuagaz batera izena eta GKE edo Elkarte baten helburua be adierazi beharko dira, beti be Ikastolaren ideia eta izaeragaz bat datozenak. Diseinu irabazlearen salmentagaz lortzen dan dirua GKE edo Elkarte horrerri emongo jako.

Aukeratua dan elkarteak bere errealitatea ezagutzera emoteko eta horren inguruan sentsibilizatzeko hitzaldiak eta tailerrak antolatuko dauz ikasturtean zehar.

Beste alde batetik, 2018/2019 ikasturtearen planifikazioan, ikastolak be elkarte horren lana landuko dau geletan, heziketa formalaren barruan be bultzada emoteko asmoz.

Ekimen honegaz hauxe lortu gura dogu:

- Familien **parte-hartzea bultzatzea**, Ikastolaren hezkuntza komunitatearen zati garrantzitsua diran neurrian.
- Familia eta ikasleei **elkartasun afektibo eta benetakoaren baloreak** duen garrantzia helaraztea.
- Gure inguruko **ahultasun errealitate desberdinak** ezagutzea.

Lehiaketaren OINARRIAK hauexek dira:

Helburua: Eskumuturreko solidario bat diseinatzea.

Parte-hartzaileak: Lehiaketa hau Begoñazpi Ikastolako familia guztiei zabalik dago.

Familia bakoitzak eskumuturreko bakarra diseinatuko dau.

Proposamena:

- a. Diseinua librea izango da, helburu solidarioa kontuan hartuta.



- b. Eskumuturrekoaren diseinuak neurri honeek izango ditu: **2 cm**-ko zabalera eta **26,2 cm**-ko luzera.
- c. Originaltasuna eta barrikuntza baloratuko dira.

Entregatu beharreko materiala: Diseinuak bi modutan aurkez daitezke: paperean edo formato digitalean.

Paperean:

Paperean aurrealdean hauxe agertuko da: eskumuturrekoaren diseinua, lehen azaldutako neurriekaz, eta azalpen labur bat (folio erditik gorakoa ez), bertan familia bakoitzak GKE edo irabazi asmorik gabeko elkarteari buruzko azalpena emongo dau, (lehiaketa irabaziz gero dirua emongo leuskio elkarte horrerri). Kontuan hartu aukeratzen dan erakundeak ikastolan ekintzaren bat (hitzaldia, tailerra...) antolatzeko interesa izan beharko leukela.

Atzealdean parte hartu dauan familiako kideen izen-abizenak eta posta elektronikoa agertuko dira.

Formato digitalean: (bai paperean egindako eta eskaneatutako lanak baita diseinua modu digitalean egindako lanak ere)

Lehenengo orrian agertuko da eskumuturrekoaren diseinua, lehen azaldutako neurriekaz, eta azalpen labur bat (folio erditik gorakoa ez), bertan familia bakoitzak GKE edo irabazi asmorik gabeko elkarteari buruzko azalpena emongo dau, (lehiaketa irabaziz gero dirua emongo leuskio elkarte horrerri). Kontuan hartu aukeratzen dan erakundeak ikastolan ekintzaren bat (hitzaldia, tailerra...) antolatzeko interesa izan beharko leukela.

Bigarren orrian parte hartu dauan familiako kideen izen-abizenak eta posta elektronikoa agertuko dira.

ORRI-EREDUA OINARRIEN AMAIERAN ESKURA DAUKAZUE.

Proiektuen aurkezpena: Disenuak bide desberdinetatik bidal daitezkez Guraso Alkartera:

- a. Paperean egindako diseinuak Haur Hezkuntzako jantokian entregatu daitezke azaroaren 8 eta 9an, 16:45etik 17:00era.
- b. Formato digitalean egindako diseinuak link honen bitartez bidaliko dira: <https://begonazpigurasoalkarte.org/bihotza-eskuan/>
Aurkezteko epea azaroaren 9ra arte egongo da zabalik.



Epaimahaia eta epaitza:

Epaimahaia honakoek osatuko dabe: GAKo kideak, Ikastolako zuzendaritza-batzordeko kideak eta pastoraltza-taldeko kideak. Epaimahaiak diseinu irabazlea aukeratuko dau.

Epaimahaiaren epaitza azaroaren erdialdean emongo da jakitera. Lehenik familia irabazleari jakitera emongo jako eta gero, GAren web orrian eta Ikastolako web orrian argitaratuko da.

Epaimahaiak saria hutsik deklaratzeko eskubidea izango dau eta beste lehiaketa bat edo beste oinarri batzuk argitaratu ditzake (horretarako lan barriak aurkeztu beharko dira).

Saria: Diseinu bakarra sarituko da.

GAK **diseinu irabazlearen eskumuturrekoak egingo dauz**. Azaroaren hamaieran salgai jarriko dira eta diseinu irabazlea argitaratzen danean **salmenta tokien** barri emongo da.

Azkenik, azken hiruhilekoan, aukeratutako GKE edo elkartearekin elkartuko gara eskumuturrekoen salmentan ataratako dirua entregatzeko.

Jabetza intelektual: Saritutako diseinua GAren jabetzakoa baino ez da izango, modu iraunkorrean. GAK erabateko askatasuna izango dau saritutako logotipoa erabiltzeko, osorik edo zati batean, edo logotipoa aldatzeko, egoki iritzi ezker.

Saritu gabeko lanak: Saritu gabeko diseinuak ez dira itzuliko.

Oinarriak onartzea: Lehiaketan parte-hartzeak beragaz dakar oinarri guztiak eta epaimahaiaren epaitza onartzea.

GAren web orrian, <https://begonazpigurasoalkartea.org>, **Bihotza ESKUAN eta ibili MUNDUAN** gure proiektuari buruzko informazio guztia aurkituko dozue. Edozein zalatza izanez gero, jarri gugaz harremanetan eta pozik argituko dogu.

Bilbaon, 2018ko urriaren 19an
GURASO ALKARTEAren Zuzendaritza Batzordea